


# Industria-iraultza eta ehun-lantegiak Bergaran

## Emakume eta nesken eginkizuna ehungintzan



Bergarako Udala

**Izenburua**: Industri iraultza eta ehun lantegiak  Bergaran. Emakume eta nesken eginkizuna ehungintzan

**Argitaraldia**: 2020ko martxoa

**Argitaratzaileak**: Bergarako udala

**Egilea**: Daiteke Gizarte Aholkularitza

**Diseinua**: Daiteke Gizarte Aholkularitza

creative commons

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
ORAIN GIPUZKOA

# Bergarako urdinaren fabrikazio prozesua

1 Ehun naturalatik haria egitea: irundegia

2 Oihala egitea: ehundegia

3 Oihala tindatzea: tindategia

Denon artean hausnartzeko galderak:

Zein oihal eta ehun natural motak ezagutzen dituzue?

Nondik lortzen da ehun naturalen lehengaia?

Bergarako kasuan zein zen erabiltzen zuten lehengaia?

Fabrikazio prozezuan lanpostu ezberdinak zeuden, bakoitzak eginbehar zehatz bat zuelarik; asmatuko zenuke lanpostu bakoitzari dagokion egin beharra?

LANPOSTUA

1. Rodetera*:
2. Encanilladora:
3. Retorcedora:
4. Urdidora:
5. Tejedora:
6. Limpiadora:

DOKUMENTU ORIGINALA:

https://bit.ly/3fECftP


NOMINA de JORNALES

TEJEDURIA

del mes de ... de 191..

OBREROS

DIAS

Encanilladoras

Retorcedoras

Urdidoras

Tejedoras

EGIN BEHARREKO LANA

A. Haria kaniletan (canilla) sartu.

B. Elkarri bi hari edo gehiago bihurritzeko eragiketa da. Makina bihurritzailean egiten da hori, zilindroak abiadura desberdinetan biraraziz.

C. Prestatu hariak "urdideran", ehungailura pasatzeko.

D. Ehungailuaren bitartez oihala egin.

E. Haria biribiltzen du. (haria rodeteetan jarri)*

F. Malutak garbitzea eta irekitzea



Rodetera* asko bilatu arren ez dugu lanpostu honen inguruko informazio argia bilatu!

Eta orain, jakingo zenuke makina bakoitza bere eginkizunarekin lotzen? Behin elkartu dituzula.. jakingo zenuke prozesua ordenatzen?

1



**A** Kardia (kotoia kardatzea)

2



**B** Urdidora (Karretetatik hartu eta haria urdidorara)

3




**C** Kanilera(Karretetatik hartu eta haria kaniletara)

4



**D** Telarra

# Irundegi mekanikoa eta Anezka Hegalaria

Industria-Iraultzarekin agertutako berrikuntza teknikoak erabakigarriak izan ziren artisau-tailerrak desagertzeko, izan ere, hainbat prozesu mekanizatu egin ziren eta produkzio-gaitasuna makina berriei esker bikoiztu egin zen. Ehungintzan oso garrantzitsuak izan ziren asmatutako irundegi mekanikoak eta anezka hegalariak.

Goazen hauen inguruan ikertzera!



## Bilatu informazioa eta erantzun hurrengo galdereei:



*Selfactina* hitza nondik dator?
Noiz asmatu ziren? Nork asmatu zituen?
Zein herrialdeetan?
Zergatik izan ziren hain garrantzitsuak?
Asmakizun hauek
eskulana aurreztea ekarri zuen.
Honen aurrean
zer nolako gertakariak egongo ziren?



Irundegi mekaniko bat martxan ikusi nahi?
Unitate didaktikoan topatuko duzu bideotxo bat.